


ttipi-ttapa

1991.eko Azaroak 7

73. zenbakia

dohain banatzen da



Juan Jesus Larras

BULARRETAKO MINBIZIAZ

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa.....	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	453039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla.....	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614600
Nafarroako ospitalea.....	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	262700
Gurutze Gorria.....	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak).....	(943) 464622
Doneztebe (larrialdiak).....	171717
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzaran	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630261
ABERIAK:	
Iberduero	450335/450336

Botikak

► **Azaroaren 9-10ean**, Lesaka, Doneztebe eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Azaroaren 16-17an** Etxalar, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

Deialdiak

► **IGANTZI**, azaroaren 8an, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

► **LESAKA**, azaroaren 8an, Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA**, azaroaren 12an, arratsaldeko

7etan, Berako Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, azaroaren 14ean, Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, azaroaren 20an, Etxalarko Euskara Batzordearen bilera.

Bestak

► **AURTITZ**, Azaroaren 8tik 11ra. Larunbat-igandean IZA-Direkin dantzaldia.

Ekitaldiak**BERA**

9. MARGO LEHIAKETA
HAIZE ZABALEAN

Azaroaren 10ean, igandea, 16 urtetik go-rakoentzat eta goizeko 8,30etatik 2ak arte. Sariak 6etan banatuko dira Gure Txokoa Elkartearen.

ARANTZA

UDAZKENEKO
JIRA BIRA

Azaroaren 17an, igandea, eguerdiko 12etan "Ortzadar Euskal Folklore Taldea", eskoletan.

Bota bertsoa**Manex BERGARA**

Gaia: Denen Borda
Neurria: Hamarreko haundia

Gaztain lepoko inguruetan
kasko erditan jarria
Ihiztariak Saran badute
biltoki xoragarria
Bakotxak hartan ase dezake
bere gose egarria
Han sartzen denak eramaten
du zorion izigarria
Uso eskasez ihiztatzen den
gehienik arno gorria

Nahiz ona den arno gorria
ez da edari bakarra
Gezur iduri bertze bat bada
deitzen dutena Rikarra
Hunek omen du gehienik kentzen
mendi gaineko sukarra
Egarri dena flakoa da
ta edaria den azkarra
Zimintzea gertatzen bada
ditake ala beharra.

AGENDA

Ekitaldiak

ELIZONDO

MUSIKA FOLCK
ZIKLOA

Azaroaren 7an, arratsaldeko 8etan, Arizkunenea Kultur Etxean, *Swing-Set* Taldea.

Azaroaren 8an, ordu eta leku berean, *Boheme* (Vienako Vals-ak).

Azaroaren 9an, ordu eta leku berean, *La Mundial* (Orkestina).

Azaroaren 10ean, ordu eta leku berean, *Jaleo* (Andaluziar musika).

GARTZAIN

Azaroaren 10ean, meza nagusiaren segidan, *Elizondoko Txistulariak*.

Ferriak

DONEZTEBE, azaroaren 15ean, azienda feria, tresnak eta... Herri Kirolak (aizkora eta arpana) frontoian 6etan.

Gastronomia

USOA SALTSAN

Osagaiak

6 lagunendako:

6 uso, tipula, azenarioa, baratxuria, ozpina edo binagrea, ardo-beltza, gatza, piper beltza, bi intxaur eta bi erramu hosto.

Guzi-guzia gordinik dagoela, egosten jarri (tipula, azenarioa, baratxuria, oz-



Tere Santxotena emana
SANTXOTENA - ELIZONDO

pina, ardo beltza...). Beharrezko duen ozpina eta olio

txorrotak eman eta, eztiki-etziki egos dadila. Kontutan hartu behar da, uso batzuk bertzeak baino gogor edo zailagoak egon daitezkeela. Behin egositakoan, usoak atera eta saltsa pasapurean pasatu.

Serbitzerakoan, prexikutako ogi xerrez lagundua baldin bada, hobe.

Nolanahi ere, saltsa bezperatik gatzaz eta moldatua bada, hobe da baita.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.800 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 145 pzta/kilo **Urdamak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....540
1.koa.....500
2.koa.....480

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....540
2.koa.....500
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 14.000 eta idixkoak 26.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 38.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

MOBLEAK
METS

Bidasoa 45, Tfnoa: 63 05 37 - BERA

SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK

Deitu eta neurtzera
joanen gara.

Konpromisorik gabe!!

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63



► **Jose Martin Etxeberria**
Azienda tratantea

- **Lehengo feriak ala oraingoak?** Lehengoak hobek.
- **Traktoreak ala aziendak?** Ferian aziendak nahiago.
- **Tratu gehiago etxeetan ala ferietan?** Etxeetan aisa gehiago.
- **Esnetakoak ala gorriak?** Esnetako behiak.
- **Tratu zailak ala erraxak?** Erraxak kezka gutiago ematen didate.
- **Azienda hobek Baztanen ala Malerrekan?** Malerrekan.
- **Tratua egiterakoan, emakumeak ala gizonak?** Bortziritan gizonak.
- **Erosten duzuna Nafarroan ala Gipuzkoan saltzen da?** Normalean Bilbon eta Donostialdean.
- **Jateko, haragia ala barazkiak maiteago?** Haragia gogoko dut.
- **Han-hemen ibiliz egin beharreko lana ala toki batean kieto?** Hor barna ibiliz hobek.

► **Riff - Raff**
Ken Loach
Britaina Haundia 1991

Duela urte bat baino gehiago, zuzendari honen bertze filma bati buruz mintzatu ginen orri haueetan *"Hidden Agenda"* ri, hain zuzen ere; Ipar Irlandako egoera politikoari buruzkoa. Errepresopean bizi den Belfast eta Britain Haundi bildurtua azaltzen zigun Kenloackek begirada lasai eta egiaren bideetik. Komertzialki ez da oraindik gure pantailetan estreinatu eta hemendik bi hilabetetara edo eginen dutela diote.



Valladoliden bukatu berri den *"Semici"* zinema festibalean bigarren saria *Riff-Raff* eman diote. Baina, noiz arte egon behar ote dugu ikusi gabe? Estrenatuko ote dute? Dena airean dago.

Zortzigarren filma du Loackek oraingo hau. Bat bakarra estrenatu zuten

duela 15 urte inguru *"Family Life"* izenekoa. Oraingo *Riff-Raff* honetan, urritasun eta giro politikotik urrundu egiten da, baina ez ordea eguneroko errealitateetik. Umore kla-bean aurkezten dizkigu igeltsero lanetan ari diren batzuren gorabeherak; hau da, etxebizitzaren es-

kasia, garestiegikeriak, langile-riaren esplotazioa, droga, arrazismoa eta dena, umore zuzenean emana.

MARIANO



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22,14 40

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Alzate 28 - BERA



Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESACA

LUR APAL MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa:
637011 LESACA



Nafarroako IV. Euskal Kantu Txapelketa

Aurtengo edizioa helduei zuzendua dago

Izan ere, iaz erabaki modura, bi urtez behin helduendako eta bi urtez behin haurrentzako izanena da aurrerantzean, elkarri txanda hartuz, alegia. Bertzalde, Euskal Herriko Final Haundia, heldu den urteko ekainean izanena da Donibane Lohitzunen, eta bertara, herrialde bakoitzetatik 4 ordezkari joanen dira.

Parte hartzeko

Euskaraz bada norna-

hik parte har dezake. Banaka, binaka edo taldeka (10 baino gutiago) berdina da. Hori bai, ezin profesionalak izan.

Izena emateko epea

Azaroaren 24a arte IKA eta AEKren edozein euskaltegitan eta ondoko tfnotan: 170151 eta 581226 (Euskalerrria eta Xorroxin irratien telefonoan). Kanporaketak Leitza eta Elizondon eta finala Donezteben.

IKA eta AEKren artean 341 ikasle eskualde osoan

AEK

Herriak	Ikasleak	Taldeak
BAZTAN (guzira 47 ikasle 7 taldetan)		
Elizondo	47	7

IKA

Herriak	Ikasleak	Taldeak
BORTZIRIAK (guzira 114 ikasle 14 taldetan)		
Bera	65	8
Etxalar	9	1
Igantzi	8	1
Lesaka	32	4
LEITZALDEA (guzira 86 ikasle 8 taldetan)		
Areso	12	1
Goizueta	16	2
Leitza	58	5
MALERREKA (guzira 57 ikasle 5 taldetan)		
Doneztebe	57	5
SARALDEA (guzira 37 ikasle 3 taldetan)		
Sara	8	1
Urdazubi	12	1
Zugarramurdi	19	1

Kopuru hauek IKA eta AEKren euskaltegietan urriaren azken astean zituzen matrikula datuen arabera dira. Gerta liteke, beraz, geroztik han edo hemen talde berriren bat sortu izatea. Bertzalde, kopuru horietan, Osasun Zentru eta Udaletako funtzionarioak diren ikasleak ere, kontutan hartuak daude. Halere, euskaltegietan adierazi digutenez, aurtengo matrikulazio kopuruak ez omen dute aldaketa nabarmenik suposatzen iazko datu eta kopuruekin konparatzen badira.

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



MODERNISMOA LABAIENEN?

Ez, ez naiz pintura erakusketari buruz ari, Aieletako lekuan paratu duten eskolako autobus paradari buruz baizik. Hauteskundeak baino lehen (noiz ba?) ekin zioten muntaketari Nafarroako Gobernukoek. Estetikaz ez naiz gehiegi mintzatuko, ene irudiz aluminiozko estruktura metalika hori oso gusto kaxkarrekoa da holako leku zabal

eta argi batetan paratzeko. Paisajeari errespeto zero!

Baina estetikaz gain, bertze zenbait akatsetaz ohartu nahi nizuke, kristoren kaxkabarrak harripatu ninduen batetan neronek sufritu behar izan nuen eta: Orientazioa oso gaizki kalkulaturik, ekaitzari begira hain zuzen. Euriak eta haizeak jotzen duenean babesaren erdia baino gehiago bustitzen da oso. Izkin batetan eseri behar... Eseri, eseri... ezin

orduan, bankuetatik ura barreneraino irristatzen delakotz. Zutik egon ba, zeruari begira!! Orduan konturatuko zara goiko kristalen artean ez dagoela inongo loturarik eta ura handik ere sartzen zaizula. Pareta- ren kontra txo!! Baina kontuz, atzeko kristalaren gainkaldea mugitzen delakotz!

Aieletako baserrietan oso ume gutxi bizi da. Hala ere ongi deritzot autobus parada bat paratzea-

ri, inongo babesik ez dagoelakotz. Baina hau gehiegi da eta gainera gaizki egina. Hori bai, aurrean paratu duten monolitoak argi erraten du "Gobierno de Navarra"-k (erdaraz) egin duela. Zergatik halako despilfarroa? Ez al dute ba Aieletako baserriek eta Beintza Labaiengo herriak bertze premiarik?

BANAKAKO BOTAKETA

Euskal Herriaren independentziaren aldeko mozioa Berako udalean eztabaidatu zela eta, EAko zinegotzia den Jose Luis Senper-en eskariz zera zehaztu behar da:

"EAK ez zuen talde bezala eman botua, banaka baizik".



Mikel Albisu



Roman Harribilaga

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

SEKULAKO AUKERA PREZIO ETA KALITATEAN

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA

MANUEL LANTZ

KONTABILITATEA ETA AHOLKULARITZA FISKALA

Errenta deklarazioak, BEZ edo IVA deklarazioak, Kontabilitateak, e.a.

Eztegara 14, 1. - Tfnoa.: 63 11 08 - BERA



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soina,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

“V. Lurraren Eguna”k egundoko jendetza erakarri zuen

Besta eta euskaldun giroa izan ziren bestaren alderdi nabarmenenak

ROMAN HARRIBILAGA

Arrakastaz garatu zen urriaren 27an, nahiz eta eguraldi ona ez egin. Ekitaldia, hilabete osoan egindako “Kultur Eguna”en barruan zegoen bildurik. 47 artisau, horietatik 9 Berakoak erakutsi zituzten beren lanak erakusketan. Horrez gain, 21 beratarrak hartu zuten parte fruitu eta barazki erakusketan.

Gasna irabazlea, Arantzakoa 12 gasna, inoiz baino gehiago aurkeztu ziren; 9 Berakoak, –Hasier Iturralde, Evangelina Peña, M^a J. Etxebeste, Pedro Telletxea, Jesusa Elizalde, “Zigardibeherea baserria”, Feliciano Matxikote, Milagros Altzuguren eta M^a Dolores Lazkano–, 2 Arantzakoa, –Jon Larretxea eta Bautista Irigoien– eta bat Etxalarkoa –Isidro Ariztegi–. Epaimahaikideak: Txomin Arranbide, Mixel Aire eta Ramon Lekuona Ipar Euskalerritik eta Bixente Irantzo, Ines Gorraitz, Ana Lazkanotegi,



Arantzako “Otsarra” baserriko Jon Larretxeak eskuratu zuen Gasna Lehiaketaren lehen saria (ARTXIBO Argazkia)



“VII. Bidasoa” Bertso Paper Lehiaketan sarituak suertatu ziren gazteak, Jamotenean (ARTXIBO Argazkia)

Jose M^a Andueza, Txomin Igantzi eta J. Antonio Garzia Hegoaldetik. Hauen erabakiaren arabera, Aran-

tzako “Otsarra” baserriko Jon Larretxearentzat izan zen lehen saria, 12.000 pzta. eta “Zalain Jatetxea”n

2 pertsonentzako afaria; Etxalarko “Basatekobordako” Isidro Ariztegiarentzat 8.000 pzttako 2. saria eta Berako “Egurri” baserriko Hasier Iturraldearentzat 3. sariaren 5.000k. Sari banaketa egin ondoren, hiru lehen gasnen erdiak subastan saldu ziren, 4.900, 2.000 eta 1.600 pzttatan bakoitza.

Bertso Papereko saridunak

“VII. Bidasoa” Bertso Paper Lehiaketara aurkeztutako 120 lanen artean, epaimahaia hauek saritu zituen: A-mailan, 14 urte azpikoetan, Berako Ibai Gogorzarentzat izan zen lehen saria; Berakoa den Jon Irazokirentzat 2. saria. Eraberean, Etxalarko Iñigo Senper-entzat aipamen berezia. B-mailan, (14-16 urteak), Lesakako Estitxu Fernandez-i egokitu zitzaion lehen saria; 2.a Berako Hasier Gozorzaentzat izan zen. D-mailan berriz, lehen saria hutsik geratu zen. Bigarrena, Hondarribiko Karolina Keirugarentzat izan zen.

B RADIO BIDASOA **expert**

Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77

BERA

**3 urtetarako garantia eta
36 hilabete ordaintzeko.**

Nork eskeintzen du gehiago?

LESAKA

Laminaciones-eko langileen alde agertu da Udala

AHV siderurgia integral bezala jarraitzea eskatzen du Enpresa Komiteak idatzi batean

AITOR AROZENA

Udalak egindako azken plenoan, ahobatez onartu zen «Laminaciones de Lesaka S. A.»-ko ordezkariak aurkeztutako idatzi bat, bertan enpresa "herriaren eta zonalde osoaren hazkunde ekonomiko eta sozialarentzako oinarritzako industriatzat" hartzen zelarrik.

Zentzu honetan, enpresa komiteak ez du onartuko AHVren etorkizuna eta siderurgia integrala bezala duen jarraipena zalan-tzan paratuko duen neurri-rik, kondizio hori galtzeak lanpostu asko galtzea suposatuko bait luke. Honekin batera, Laminacione-seko ordezkarien ustez, "zonalde osoa pobretuko zen, ekonomi sektore guztietan nabaritutako baitzen".

Alkateak erran zuenez, Urriaren 10ean bilera izan zuten Bidasoa, Baztan eta



Zubi berri bat dugu herrian, Erdiko Errotako kanalaren gainean. Principe de Viana erakundearen laguntzarekin egin du Udalak.

Malerekako Industria komisiokoak, bertan idatzi hau onartzea eta Nafarroako Gobernuaren lehendakariarekin eta Industria kontseilariarekin bilera bat lehen bait lehen egiteko eskatzea erabaki zelarrik.

Jubilatuen egoitza moldatzeko subasta

Escriboena etxean

(Alondiga) jubilatuen egoitza egin asmoz, lokalaren moldaketa obrak adjudikatzeko enkantea edo subasta atera du Udalak. Kontrataren aurrekontua 12.922.728 pztatakoa da (BEZ barne) eta behin behineko fiantza miloi erdikoa izanen da. Aurkeztutako eskeintzak, hilaren 13an jakinaraziko dira, eguerdiko letan.

ttipi-flash

□ Kanposantuaren moldaketa dela eta, lur eremua nahi duten guztiak lehenbaitlehen joan behar dute Udaletxera tokia gordezera.

□ 22 emakumek eman dute izena mantenimendurako gimnasia ikastaroan.


□ Bazkaria izanen dute hilaren 9an, 1944, 45, 46 eta 47. urteko kintoek Zailain jatetxean.

□ Miguel Jose Belarra Telletxea 26 urtetako doneztebearra izanen da 8 hilabetez Udaleko idazkari probisional.

□ Tantirumairu ikastolako aurre eskolako haurren guraso talde bat, urtean zehar gelaz kanpoko ekitaldiak antolatzen hasi dira.

□ Soldaduskaren aurrean intsumisioaren bidea defendatu du Lesakako Jarrai-k idatzi baten bidez.

KARMELE



GOIZUETA KIROLAK

Kirolak Mendirako artikuluak

Behoko Plaza 10 LESAKA

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79 Bittiria karrika - LESAKA

XATURETXEA FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA



* KIXKUR * ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak administrari laguntzailea hartuko du

PELLO APEZETXEA

Bortzirietako Hondakinen Mankomunitatea urte honetan hasi delako, berorek zeregin franko ekarri du Etxalarko Herriko Etxera. Hemendik bideratzen baita Mankomunitateari dagokiona. Horregatik, egun erdiko lana burutzeko administrari laguntzailea hartuko du, horretarako egingen den deialdiaren ondoren azterketa gainditu beharko delarik.

Kezka Lesakako fabrikagatik

Bizkaiko Labe Garaiak lantegia mantenduko ote den eta, Etxalarren ere kezka atea jo du. Izan ere, Lesakako Laminazio enpresa Bizkaiko Labe Garaiak edo Altos Hornosen zati denez, hau eroriko balitz Lesakako lantegiaren etorkizuna ez litzateke batere segurua izanen. Eta



Ez pentsa besta eguna denik, ez igandea, ezta larunbata ere. Astelehen arruntean egindako erretratoa dugu. Herriko Etxe, eliza eta plaza arteko bidea gero eta oztopatuagoa suertatzen ari da. (Arg.:PELLO)

denok dakigu gure herritar aunitzen soldata handik datorrela. Fabrikako Enpresa Batzordeak eskua eman dezala eskatu dio Udalari, honek eskaria ahobatez onartuz.

Kultur Astea eta Usategi Igandea

Hilaren hamaikako Ikus-entzunezko edo au-

diobisualen emanaldia interesgarria izan bazen, Peter Roberts mimoa kalitatezko ikuskizuntzat jo behar dela zioten ikusleek. Usategien igande bezperako eguraldia sobera atsegina ez izanagatik, gazte jendea ongi bildu zen rock kontzertua entzuterera, Ekin, Auskalo eta Zarama taldeek emana, Izadi taldea-

rekin segituz gero. Mixel Bedaxagar xuberotarrak kantatu zuen igande arratsaldean, aintzineko igandeko pentsatua zegoena, Egan taldearekin dantzaldiak bestari bukaera eman ziolarik. Nahiz eta «Nafarroa oinez»ek jendea murriztu ziola uste izan, gausa eta igande arratsaldeko antolatzaileak, herriko gazteak, aski kontent gelditu dira, gastu guztiak aisa ordaintzeko bildu baitute. Kantaldiari eskaini zaion ordua eta lekua ez da, behar bada, egokiena.

Baztertuak gaude

Nafarroako Gobernuak ikasle baztandarrentzat autobusa paratu du Iruñeko Unibertsitatean joan ahal izateko. Mugairetik hunatekoentzat, ordea, ez. Bereizketa hori salatuz bere protesta agertu du Etxalar-ko Udalak, Arantzakoarekin bat eginez.

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 **LESAKA**

KOXXKONTA



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

**Sagardotegia
Erretegia**

Ezkontza,
bataio, bileratarako
leku egokia
(200 pertsona)

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

IGANTZI

Urte txarra ehiztarientzat


Bertzalde, luberriak ateratzen hasiak dira

OSKAR TXOPERENA

Zenbait ehiztarik erran digunez hau izan omen da aspalditik gogoratzen duten urterik txarrena. Eguraldia da, gehienbat, honen errudun, Igantzin usoa sartzeko haizegoa egin behar izaten baitu. Halere, ondo hilabetea izandu da urria, aste pare batez izugarri bildu baitu jendeak.

Luberriak ateratzen

Hiru lekutan hasiak dira luberriak ateratzen: Abelu, Unanu eta Frainen. Pionbordan egitekoa baldin ba-



Abelu, Unanu eta Frainen luberriak ateratzen hasiak dira.

zen ere, azkenean, ez egitea erabaki omen da zuhaitz aunitz bota behar eta ehiz-

tariak ere ez konforme.

Eraikitzeko tasa altxatu da

Udalaren azkeneko bilera erabaki zen bezala, hemendik aintzineren norbaitek etxe berria egin, moldatu edo obraren bat egin nahi baldin badu, presupuestoaren %2a ordaindu beharrean, %2,5a ordaindu beharko du.

Arau Subsidiarioak ikusgai

Datorren azaroaren 16an bukatzen da Arau Subsidiarioak ikusi eta erreklamazioren bat egiteko epea. Hauek, Herriko Etxean daude ikusi nahi dituenarentzat.

KARMELE

ARANTZA

Xorroxin irratia normaltasun osoz entzuten da


Asteartero, ordu batak aldera, herriko berriak ematen dira FMko 107,4ean

JON LARRETXEA

Hasieran zenbait arazo tekniko egon baziren ere, gaur egun ongi entzuten da, eta asteartero, Jose Ramonen eskutik, eguerdiko ordu batak aldera, Arantzako berriak.

Pistak enbreatzeko laguntzak

Duela 3 urte ukatu baldin bazituzten ere, orduan eskatutakoak orain bereharta onartzea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Guzira, ia 20 km. tarako dago laguntza eta kopurua aurrekontuaren %60-75 artekoa izanen da.



Jose Ramonek ematen ditu asteartero herriko berriak.

Tomas-en karta

"Mendaurreko joan-etorriari ezetza eman diot.

Bere marka demostratu edo bertzenaz borrazeko eskatuta, ezetz erran dit

berriro ere (...). Halere, nik ez dut nere lana erregal moduan utzi beharrik. Lehenik hobetu egin behar baita nire marka, 65'takoa eta orduan bai, orduan bi testiguen aintzinean zorionduko nike. Bitartean ez dut galtzailatzat hartzerik merezi. Hobe denari barkatzen, badakit. Tomas"

Berriemailearen oharra: Orain arteko markak bi testiguen baieztauz gero ontzat ematen nituen baina badirudi ez dela nahikoa. Hemendik aintzineren, aintzindik abisatzen ez bada ez da hemen agertuko.

ARTIBOIA

Urria berriz urri

Trenbideko urbideak egiten ari dira

PATXI PETRIRENA

Goian idatzitakoa modu ezberdinez entenditu badaiteke ere, erran nahi izan duguna zera da, hilabete honek gauza aipagarri gutti ekarri digula. Baliteke berriemailea despistatu samarra ibiltzea ere ...

Sokatiran berriz txapeldun

Beran V. Lurraren Egunean jokaturako 680 kilotako sokatira txapelketan sunbildarrak nagusitu zitzaizkien beratar eta ul-tzamarrei, baina hau dagoeneko ez dugu berria, ohitura bihurtzen ari da eta! Hori duk sasoa mutilak... Hiru kategorietan Nafarroako txapeldun.



Karrika eta trenbide zatia konpondu gabe dago Leku Ederren
Argazkia: Patxi

Trenbideko urbideak

Trenbideko zola berria emana bada ere, bazterrak

aski kaxkar geldituak dira, batetik oska eta bertzetik kaskailua. Orain urbideak egiten ari dira.

Leku Eder

Leku Ederreko asfalto zatia ere harrotuko dute ormigoia botatzeko gaine-rakoan bezala, eta hurrekin batera Allida aldera egin gabe gelditu zen zatia. Beharra bada.

Saihesbideko ustegabeak

Hamabi metroko zuloa eginez harrapatu behar zuten harria tunelaren sarre-ran, prospekzioen arabera, baina hogeitara ailegatu direnean oraindik ezin aurkitu dute harri tinkorik. Ondorioz, aunitzez lur gehiago mugitu behar dute eta sobalo haundiagoa hondatu, erortzak ere horretan laguntzen duelarik.


GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA



HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

Aditu Baten Ziurtasuna

LAGUN AROn honako hauetan gara adituak:

- Industri Aseguru Konbinatuan
- Bizitza Aseguruetan
- Eraikuntzako Arrisku Orotariko Aseguruan
- Etxe Aseguru Integralean
- Komertzio Aseguru Integralean

LAGUN ARO ASEGURUAK. Konpainia on baten balioa.

LAGUN ARO
SEGUROS
ASEGURUAK

Carlos III.a Etorbidea, 14
Tlfnoa.: 22 56 66 Fax: 22 10 49
31002 IRUÑA-PAMPLONA

Ostatua, San Juan z/g
Tfnoa.: 61 51 19
31747 SALDIAS

Juan Jose Urrutia Juanenea
(Ajentea)

DONEZTEBE

EAK independentziaren mozioa aintzinera atera zuen

Bertzalde, azaroaren 15ean Doneztebeko Feriak

TXEMA ALDABE

Urriaren 25ean egindako udal-batzarrean, bertze puntuen artean eta Eusko Alkartasunak aurkeztua, Euskal Herriaren autode-termizazio eta independentziaren aldeko mozioa zegoen. Bototara eramandakoan, honako emaitzak eman ziren: aldeko botoak 4 (EArenak); abstentzioak 2 ("Donezteben Alde" taldekoenak eta kontrako botoak 3 ("Unión Doneztebarra" taldearenak.

Ferriak

Ez da gauza berria Ferriak sortzen duen jakinmina. Malerrekako jendeaz gain, inguruko herrietako jende franko bilduko da



Holako aretxirik ikusteko aukerarik izanen ote dugu ferietan? Aretze hau Urrozko Santxokobordakoa da, 600 kilo inguru bizirik, 340 kanalean eta bere balioa 240.000 pztatakoa.

AGESTA

Bertsolariak, aizkolariak, arpanlariak... Bigarren mailako aizkolari Txapelketaren Finala eta arpanlarien finala jokatu da feria egun honetan. Eta goizeko 11,30etan, Merkatuko Plazan bertsolariak arituko dira.

Pelikulak

Azaroaren 9-10ean "Rocky 5"; 16-17an "Mira quien habla tambien".

Mus Txapelketak

El Cafe-n azaroaren 8an hasi eta ortziraleroko eta Alkartetxean hilabete behin, larunbatez. Nolanahi, sari ugari izanen dira. Inskripzioak eta informazio gehiago El Cafe-n.

Donezteben azaroaren 15ean. Bordaxoko apartakalekuak, Amezti, Parrokia eta Karrika Nagusia eta Bear-Zana frontoia sal-

tzaileen puestoz gainezka egonen dira egun horretan. Negua ganean dugula eta jendeak aprobetxatu egin nahi du gauzak erosteko.

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - **DONEZTEBE**

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

GAZTAÑAGA

Taberna

Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 610708 - **LEITZA**

BEATRIZ ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - **DONEZTEBE**

- Solarium-a
- Ileapaindegirako produktuen salmenta
- Ordua eskatu

Udazkeneko moda Estilo propioz egindako arropak

Arropak

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - **DONEZTEBE**

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - **DONEZTEBE**

Euskara ikastaroak AEKren eskutik

Aurtizko bestak azaroaren 8, 9, 10 eta 11an

IBAN ISASI

Iaz antolatu ziren bezala, aurten ere (berandu bada ere) AEKk euskara ikastaroak antolatuko ditu Iturenen. Anima zaitezte eta eman izena Iturengo Herriko Ostatuan.

Aurtizko bestak

Oraindik programa eskutan ez badugu ere, musika eta zenbait ekitaldiren berri badugu: Ortziral gauz eta larunbat arratsaldez Ramontxorekin



dantzaldia. Larunbat gauean gau-pasa eta igan-

dean Izadi taldearekin dantzaldia. Igandean ber-

tan, Herri Kirolak izanen dira Meza Nagusiaren ondotik eta astelehenean, Herri Bazkariaren ondotik Joxe Angelekin dantzaldia. Beraz, animatu eta ager zaitezte.

Jostungintza industrialia

EPak antolatuta jostungintza industrialeko ikastaroak ematen ari dira Iturengo mutilen eskolan (Lau bide) Udalaren laguntzaz.

MariCruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTBE

Zure publizitatea
4.600 etxetara
zabaldtu nahi baduzu,
deitu 631188ra



ETXEGARAI

BIDEO KLUBA

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

* Zure ingurua klase guzitako
insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma,
kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu
nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!



Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan
Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

ZUBIETA

Ostatuko lanen martxa, begi bistan

JUAINAS

Hainbeste denbora eta hitz alfer botarazi dituzten obrak, badirudi laster bukatuko direla, inotietarako? Majo litzateke ordu-rako irekia balego, eta ez da ezinezkoa, Patzikuk duen martxaren arabera. Kanpotik, azken detaileak falta zaizkio, barrendik zerbait gehiago. Aspaldiko batean esaten genuena: "pal 92"!

Ura saneatua

Lautanogeitahamabirako izanen dugu, baita, *ur legala* herrian, mila buelta eman ondoren kloratzaile elektrika bat jarriko baita, horrela, zenbait iturri saneatu eta babestuz eta gainerako iturriak, bakoitza



Bistan dagoenez, "pal 92" egina (KARMELE Argazkia)

bere gisara. Aingerukoak eta Zubikoak, abuztuan egin ziren konponketen ondorioz, hagitz ur ona ematen dutela dio sanitarioen azken txostenak, Zubitarren lasaitasunerako, inoiz kezkatu-rik egon baldin badira.

Gerekatarrak

"Enorabuenan" ditugu. Bata, Iñaki, lana eta maestraren etxeko konponketa-ekin; bestea, Mitxel, Leitzako eskolan hasia delako. Berarekin Zubietan bostgarren maisu-maistra. Kanpoan bizi direnak, le-

jioa! Guztiak euskararen munduan. Jon Mutuberria, aldiz, Norfres-en hasiko da.

Elizan kalefakzioa jarri dute

Jainkoa kondiziotan ohoratzeko. Hau ez da Zubieta, hau Jauja da!

Pedro Errok... izua

Berri txarrak badirela eta... Pedrok eman digu izua. Oraindik ez dugu "onen aldean" jarriko baina, hemendik aurrera ostatuen zerbitzuak baino iturriarenak ditu hobek. Bera, seguraski, ez da konforme etorriko. Ospitalera ez zuen joan nahi eta eramaten zutela, batek, "hombre Pedrito" esanari, abudo erantzun zion "tokame el pito" ohizkoarekin.

URROTZ

Uso gutti aurten

TXEMA URROTZ

Hau ez da berri harrigarria izanen, non nahi ere gauza bera gertatuko baita, baina hemen jende asko ibiltzen denez, nabari da ehiztariek ez daudela oso konforme. Eguraldia ere ez omen da oso aproposa uso pasarako eta pasatzen dena oso altura haundiatik omen doa. Datorren urtera arte esperatu behar, orduan doblea etorriko da.

Guardia zibila nabari da

Egondu izan dira Guardia Zibilak-ere ehiztariei kontrolatzen, eskopeta mordoa kendu zituztelarik arrazoi ezberdinegatik. Baina, hortik kanpora ere ibili dira numero- txoak egiten eta gaueko ordubietan ere ikusi izan dira hemen barrena; agian, indarra erakutsi naizik ibiliko dira



ARTXIBOA


Ihizi denboran mendi eta xokoak jendez betiak ditugu

Ahuntz Bizkarren bi ihiztari izaten dira posta bakoitzean eta hiru Gaztain Lepon

OLHAIN ELKARTEA

Ihizi denbora ideki denez geroztik Sarako mendi eta zokoak jendez betiak ditugu. Urte guziz bezala usategietan eta postetan aritzen dira uso ihizian. Usategietan ohidura den bezala sareak ezarri dituzte Nabarlats eta Errepausun artean.

Aldiz, Gaztain Lepon, Etxalarko usategien ondoan, Akokan eta Ahuntz Bizkarren dira aurkitzen ihiztatzeko egin postak. Beraz, goiz guziz, ihiztariak Lizarietako bidean Xokobia ostatuan biltzen dira eta sei t'erdietan Sarako Uso Batasuneko lehendakariak egiten du pos-



MIXEL

"Ponpon" behorak aise garraitu zituen Sarako Indar taldeko tiralariak

ten banatzea zenbakiak xortean tiratuz. Saratarrek ihiztatzeko eskubideak karta baten erostean erdiesten dituzte baina kanpotarrek behar dituzte 200 libera ordaindu aldi guziz. Gauza hauen kudeatzeko

badago elkarte bat "Sarako Ihiztariak" deitua eta huren buruzagia Pantxo Pradère jauna dugu.

Hauetaz kanpo bi lepo ezagunetan aurkitzen dira bi etxola: Gaztain lepokoa "Denen Borda" deitzen da

eta Ahuntz Bizkarren aurten egina dute "Ahuntz Bizkar" borda. Ihiztariak gisa hortan elgarretaraten dira. Bukatzeko ez dugu ahantzi behar iaz 150 zuhaitz landatu dituztela ihiztariak eta otsailan bertze hanbertzen landatzeko asmoarekin dira. Huna hemen ihiztariak mendia zaintzen dutelako frog!

Uso besta

Arrakasta haundiarekin iragan zen aurten Uso Besta. Erran behar da Minima eguna ez zela gehiago egiten Saran eta ohiduraren berpizteko Besten elkar-teak eta "Syndicat d'Initiative" -kerabaki zuten ospakizunak beraien gain hartzea.

MENDI HOTELA



DONAMARIATIKO BESTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea

Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza tikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

Larreetako proiektua aldatzea eta “Aizan” mendia ez ixtea, erabaki zuen Udalak

ANTTON ERKIZIA

Hain korapilatua eta luze gertatzen ari den menditako larre edo pastizalen hobekuntza dugu berriz ere



gaia.

Udalaren azken batzarrek honako erabaki hau hartu zuen: “Aizan” mendia itxi gabe, larreak garbitu, ongarriztatu eta erein

Juan Oronoz, alkate, parlamentari

Leitzeko oraingo alkatea, Juan Oronoz, Nafarroako parlamentari ere izanen da hemendik aurrera, Eusko Alkartasuna taldearekin, Petrizan-ek utzi-

edo hazia botatzeko lanak burutzea, aldakuntza honen berri ofiziala behar den to-kira bidaltzea aste bateko epean, eta proiektuaren al-daketa honekin sobratuko

den dirua gainerako menditan inbertitzea. HBk eta Independienteak elkarrekin eramandako idatzi honek 7 boto izan zituen alde eta 4 boto aurka.

tako aukia hartuz. Honekin, Leitzako herriak, egun, bi seme parlamentari dauzka Nafarroako Legebiltzarrean: Patxi Zabaleta, HB taldetik eta orain, Juanito Oronoz ere, EA taldetik



“Gure - Etxea”

“Eskubiren Etxe” ondoan, etxe bizitza berriak

“Gure - Etxe”, eskubitarrena izandakoa erosi zuen Iruñeko “Plaza” etxe komertzialak, hiru pisutako (bost etxe - bizitzarako) eraikuntza berri bat egin asmo du, alde zaharra aldera ematen duen baratzan, eta horko estarta zabaltze-

ko metroak emanez herriari. Baimena eman aurretik, informe teknikoak eskatzeko gelditu zen Udala.

□ **Zinea**, pelikulak botako dituzte, ostirala gauze eta igande atsalde eta ilunabarretan. Hila honen bukaeran hastekoak dira.



Irripar egizu, arren...



... eta beta hartu, naturaleza gozatzeko, urte sasobe eder hontan.

Telebista-errepitidorea jarriko du laister Udalak

Materialaren balioa 2.100.000 pezetakoa izanen da eta txabolá auzolanean egingen da

ESTEBAN AROZENA

Urriaren 26an herri bazarrean hartutako akordioari erantzuna emanaz, ETB1, ETB2, T5 eta A3 ikusteko errepetidorea jaritzeko gestioak egingo ditu Udalak. Antena berria, TVErenaren inguruan joango da, teknikoen ustez tokirik egokiena delako.

«Ikusi» enpresaren ordezkari batek bileran adierazi zuenez, materialen balioa 2.100.000 pztkoa da eta txabola auzolanean egingo da. Bestalde, teknikoen hitzetan inolako arazorik gabe iritsiko omen dira 4 kateen irudiak herrira eta baserri guztietara.

ETB sortu zenez geroztik, etxe gehienetan



Zaharrek giro zoragarrian igaro zuten beraien eguna (ANTTON Argazkia)

ikusi izan da kate hau errepetidore pribatuena bidez.

Hala ere, herritar asko haserre azaldu dira beti, nahi bezalako kalitatearekin ailegatzen ez zirelako irudiak.

Zaharren Eguna ospatu zen

Umore Onaren antolakuntzapean Urriaren 27an ospatutako Zaharren Eguna arrakasta izan zuten, 100 aitona - amona

bildu zirelarik elkartearen prestatutako bazkarira. Pilotari partiduek, herriko trikitilari gazteek eta Larrañaga eta Narbaiza bertso-lariak ere, beren aportazioa egin zuten zaharrentzat hain garrantzizkoa den egun hau giro zoragarrian igaro zezaten.

Bezperan jubilatutako arteko mus eta truk txapelketak jokatu ziren ondorengo emaitza hauekin: Musean txapelak, Balentin Etxenike eta Joxe Eskudero; bigarren, Angel Loiarte eta Pedro Mutuberria. Trukean, Mertxe Perurena eta Maritxu Zubiri irabazleak, Manuela Orriok eta Juakina Lujanbiok lortu zutelarik bigarren postua.

ARESO

230 kilo pozoi erabili dira desratizazio kanpaina

JUANA MARI

Urriaren desratizazio kanpaina egin zen eta arrakasta handia izan du. Jendeak esaten zuten arratoi asko zegoela toki guztietan. Esan ere urte batzuk badirela kanpaina hau ez dela egin. 3 tekniko etorri ziren Diputaziotik eta 100 kilo ratizida ekarri zuten, errekan, lehengo zaborte-gian eta alkantariletan banatuz. Dena egun batean bukatu zen eta gehiago eskatu zuten jendeak. Hu-

rrengo egunean beste 130 kilo ekarri zituzten. Pentatzekoa da ratizida guztia ondo banatu bada eta normak betetzen badira Aresoko arratoi guztiak desagertuko direla.

Gaztelura eskursioa

Aresoko umeak bi egunez Gaztelura joan ziren. Lehenengo Tolosa bisitatu eta bazkaldu ondoren oinez Gaztelu bidea hartu zuten. Hurrengo egunean Kultur Etxean ibili ziren jolasten, herria pixko bat



ikusi zuten eta bazkaldoan ume larrienak oinez

bueltatu ziren Aresora eta ttikiak berriz kotzez.

BAZTAN

Urriko ferian, jende aunitz eta saltzaile gehiago

Hala ere, zegoen jendearentzat azienda guti eta garestia izan zen


JOSEBA I.

Nahiz eta gero salmentak txarrak izan, saltzaile aunitz bildu zen Elizondoko Urriroko ferian. Kexu agertu ziren aurten feriantek, 1.600 pezetaraino metroko ordaindu zutela beren postua jartzeagatik eta... diru horren ordainik ez zela salmentetan agertzen erran ziguten.

Nekazari ferian, arrasazienda guti eta garestia. 230.000 pezetataraino ordaindu zuten bigarren umealdi behi bat. Adin puskako ahari bat ere bazen 45.000 pezeta eskatzen zuelarik bere nagusiak. Bizpahiru zaldi eta... asto bat.

Zegoen jendearentzat azienda gutti, batez ere batek erraiten zuen bezala "plazara azienda ateratzeko balientea izan behar dik". Nekazaritza tresneria bai, bazegoen, urtero bezala eta baita kotxeak, izugarri. Urtero bezala jendea harat-honat ibili ondoren lagunekin solasean aritu eta bazkaltzera.

Ondoren pilota parti-



Ongi legoke bertako produktu elaboratuak ere lekua izatea ferian

Artxiboa

duak, baina aurtengoak txisteraz eta palaz zirenez arrakasta guti izan zuten. Arrankurek ere sumatu genituen, esku pilota partiduak behar zirela eta.

Eta arratserako HBk gaupasa antolatu nahi izan bazuen ere, azkenean suspenditu egin zen, Udalaren baimenik ez zuelako jaso frontoi estalia erabiltzeko (gazte jendeak mozkortu eta ganberradak bertzerik ez omen dituzte egiten).

Turismo plangintza

Udalak turismoari buruz plangintza orokorra

(300 milioi pezetatako diru kopurua) aintzinerara ateratzeko asmoa du. Lehen pausua, lur zati bat erostea kanping bat egiteko.

Jauregi, dolmen edo trikuarri, etxalde, etabar agertzen diren 4 ibilbide edo ruta ere egin dituzte. Hau dena, berriki argitaratuko den liburuxka batetan sartuko da. Aipagarria da, bertalde, Europako "Ruta ttikiak" izeneko Turismo erakunde batetan sartuak daudela ibilbide hauek, Nafarroan lehen aldiz.

ttipi-flash

□ **Kirol** koordinatzaile berria izendatzeko konkurso-oposizioa atera zen eta 5 lagunek egin zuten azterketa Urriaren 31an. Lehenagoko kirol koordinatzailea ez baitzen Boletinean agertu eta zenbait baldintza ez zirelako bete.

□ **Amaiurko** eskolan gela berri bat egiten ari dira.

□ **Konzentrazioko** pilotalekua berri dute 4 miloi gastatuz.

□ **Berroetan** Elkarte berri bat ireki da. Bertan egon zen Eguzkitze.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udazkeneko moda, opariak, telak

Hogei gazte hasi dira euskara hobetzeko ikastaroan

Bertzalde, zakurrek ardiak hiltzen ari dituzte Olasurko alderdian

MARGARI eta KORO

Urriaren 22an IKAREN eskutik 20 gazte hasi ziren euskeraz alfabetatzeko ikastaroa egiten. Astean 3 egunez (6 ordu), ahal duten guztia ikasten saiatuko dire.

Lehendabiziko astea akitu delarik, franko kontent eta gustura ikusten ditugu, ea animo berdinean segitzen duten bukatu arte. Irakasleak berriz, Jon Larretxea eta Eukene dira, eta

huntan ere suertea izan dute, biak pazientzia haundikoak direlako.

Zakurrek ardiak hiltzen ari

Pentsatuko duzuen zakurren konturik bertzerik ez dugula, baina uste dugu beharrezkoa dela hau aipatzea: Azkeneko egunetan Olasurko alderdian, muga inguruan, bi zakurrek lau edo bost ardi hil dituzte. Uste denez, Sarako baserriren batekoak omen dire. Mesedez, norbaitek



Euskara ikastaroak

Argazkia: JON

hunen berririk balinbadaki, zerbaite egin dezala ar-

dien hiltzeari bukaera emateko.

ZUNZARREN
Gestoria

❖ Allianz Ras Aseguruak

❖ Bidai Agentzia

Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2

31700 ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

FZ
FOTO ZALDUA

Argazkiak, Bideoa, Markoak

Zure argazkiak berehala errebelatuak eta gainera profesionalen kalitate eta kolorearekin
KONPARA ITZAZU!!

Elizondo Tf: 58 04 91
Doneztebe Tf: 45 03 64



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu



BAZTAN
ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Barbereneko Francisca Elorgak 98 urte bete ditu

ALIZIA OLAIZOLA

Duela 98 urte Barberenean sortu zen Francisca-ren urtebetetzea ospatu zuten urriaren 5ean. Egun ere sortetxean bizi da Miguel eta M^a Angelesekin. Mende bat bizkarrean daraman andre xahar hunek, hainbertze gauza ditu konstatzeko segurki. Nolanahi, osasun ona dauka eta gantxillo lan politak egiten ditu denbora pasatzeko. Urtebetze egunean, herriko apaiza, senideak eta auzotar batzuk bildu ziren. Zo-



Francisca urtebetetze egunean, familia eta auzokoekin konpainian

Argazkia: ALIZIA

rionak eta segi dezala horrela aunitz urtez.

Ordezkoa

Egun hauetan bertze

medikua daukagu herrian, hemengoa, Bene, oporretan baitago. Urtero sasoin huntan oporrak hartzen ditu

ehizirat joateko.

Euskara klaseak

...hasiak dira Leorlasko eskoletan astean bi egunez eta 12 ikaslerekin.

Domine Saindua

Azaroaren Ilean Meza Nagusia izan zen eta urtero bezala, jendea duela guti haunditua den kanposantura joan zen.

Gazteen besta

Azken urteotan egin ohi duten bezala, laister ospatuko dute beren besta ttikia Indianobaitan; afaria eta dantzaldia Modestorekin.

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, Agerra Industrialdean

FOTO GOIKO

Altzate karrika, 36 Tfnoa: 63 05 15

Fax: 63 05 15

BERA

- Ezkontzetako erreportaiak: Argazkia eta bideoa
- Karnet argazki berriak
- Argazki eta bideo materialaren salmenta

● "Udazkeneko kanpaina" 2 x 1

Abenduaren 31a arte.

135 -12 - 24 eta 36 roiloak errebelatzerakoan 2 eraman eta 1 ordaindu.

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA

Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

EZKONTZAK

Peio Elhorga eta **Nelly Carole Moulou**, Saran, urriaren 25ean.

Mattin Iziaga eta **Corrine Aubry**, Saran, urriaren 18an.

Fidel Jimenez Mujika eta **Eulalia Arriada Irungarai**, Amaiur eta Iruñekoa, Irailaren 14.

Manuel Ballarena Iturregi eta **M^a Josefa Añorga Rementegi**, Elizondo eta Donostikoa, Irailaren 21ean.

Jose Jabier Irungarai Elizalde eta **Margarita Solano Rodriguez**, Gartzain eta Pasaiakoa, Irailaren 21ean.

Manuel Mitxelena Maritorea eta **Anparo Iparragirre Bikondoa**, Amaiur eta Oronotz-Mugairikoa, Irailaren 28an.

Eugenio Mutuberria Jorajuria eta **Mari Cruz Aiestaran Legasa**, Oieregi eta Lesakakoa, Urriaren 18an.

Joaquin Barrenetxe Yanci eta **Elena Almandoz Mendiburu**, Berroeta eta Iruñekoa, Urriaren 19an.

David Alzugarai Mendiberri eta **M^a Jesus Pernaute Bengoetxea**, Doneztebe eta Iruñekoa, Urriaren 24ean.

Aurelio Garces Sese eta **Inma Pellejero Mestre**, Huesca eta Barcelonakoa, Urriaren 26an.

JAIOTZAK

Julen Arburua Jimenez, Lekarotzen, urriaren 25ean.

Laure Saint Esteben, Saran, urriaren 15ean.

Alexandra Harding Simpson, Saran, urriaren 9an.

Iñaki Aranburu Mitxelena, Iturenen, urriaren 19an.

Oier Bereau Elizalde, Iturenen, urriaren 30ean.

Mikel Goñi Etxebarria, Donamarian, Urriaren 22an.

Mikel Igoa Jaimerena, Zigan, Irailaren 13an.

Cristina Gortari Arraztoa, Iruritan, Irailaren 27an.

Aritz Alunda Pain, Iruritan, Irailaren 25ean.

Ruben Danboriena Etxenike, Iruritan, Urriaren 3an.

Saioa Almandoz Arriada, Elizondon, Urriaren 7an.

Gabon Gamio Etulain, Oronotz-Mugairin, Urriaren 9an.

Iñigo Barberena Gortari, Elizondon, Urriaren 24ean.

Aritz Telletxea Etxepare, Lesakan, Urriaren 16an.

Josu Leiza Igarzabal, Lesakan, Urriaren 18an.

HERIOTZAK

Joxe Zabala, Goizuetan, Urriaren 19an, 62 urte.

Manuel Telletxea Telletxea, Beran, Urriaren 18an, 39 urte.

Francisco Elizondo Irigoien, Saran, urriaren 13an.

André Naussy, Saran, urriaren 25ean.

Jose Sanzberro Mitxeltorena, Etxalarren, urriaren 29an, 54 urte.

Lina Goñi Amigorena, Donamarian, Urriaren 8an, 80 urte.

Angel Igoa Erneta, Donezteben, Urriaren 18an, 76 urte.

Jose Apeztegia Apeztegia, Sunbillan, Urriaren 27an, 71 urte.

Josefina Arretxea Galtzagorri, Sunbillan, Urriaren 24ean, 84 urte.

Juana Larralde Aleman, Elizondon, Irailaren 12an.

Leoncio Irigoien Bikondoa, Gartzainen, Irailaren 13an.

Josefa Asuncion Iparrea Iturralde, Erratzun, Irailaren 17an.

Juana Goñi Maiora, Arraiotzen, Irailaren 20an.

Antonio Fernandez Ezpeleta, Elizondon, Irailaren 21ean.

Anastasio Goietxe Olandegi, Zigan, Irailaren 22an.

Felicitas Gurrutxaga Duxtene, Elizondon, Irailaren 27an.

Eusebio Pedro Aleman Etxenike, Elizondon, Irailaren 30ean.



- Aluminio Aroztegia
- Burdin Aroztegia
- Ate Automatizazioa

Santiago 71, Tfnc: 580166 - **ELIZONDO**



UNION CONTACTS LOISIRS

ZURE GIZA HARREMANETARAKO AGENTZIA

TFNOA: (943) 42 64 11

Okendo 2, 20004 - DONOSTIA

- ♥ Bakarrrik zaude?
- ♥ Zergatik?
- ♥ Ez duzu inor ezagutzen zurekin ezkontzeko?
- ♥ Familia bat egin nahi baduzu...
- ♦ Gure laguntzarekin nahi duzuna lortuko duzu.
- ♦ Kezkarik gabe etorri guregana edo deitu.
- ♦ UCLrekin zoriontasuna lortuko duzu! Animatu!

Eskualdeko 5 familietatik 3k, *ttipi-ttapa* hartzen dute beren etxean hamabortzero

Halere, egunero ailegatzen dira harpidetza berriak

Azkeneko Udal-errola edo "padron"etik bildu berri ditugun datuen arabera, guzira 7.247 familia omen daude eskualdean.

Datu horren arabera eta harpidetza kopuruarekin aldekaturik, gaur egun bortz familietatik 3, (3,14 zehatzagoak izateko) *ttipi-ttapa*ren harpidedun direla ondorioztatzen da.

Portzentai hori, jakina, ez da herri guzietan kopuru berean ematen.

Dena dela, ez da ez txantxetako gaur egun lortu den ezarpena.

Idea bat izatearren, aipatu soilik, gurearen gisara Euskal Herri mailan astero edo hamabostero argitaratzen diren 6 aldizkari haundienek batera 20.000 ale argitaratzen dituztela/ditugula, 60.000/80.000 inguruko irakurlegoarekin. *Euskal Prentsa Lokalaren osasunaz ari gara, bertzerik gabe!*



Erakunde Ofizialen diru-laguntzak (*)

ttipi-ttapa
4.600 ale
HAMABOSTEKARRIA

Nafarroako Gobernua.....	7.800.000 Pzta.
Bortzietako Euskara Mankomunitatea.....	5.791.244 Pzta.
Malerrekako Udalak.....	327.560 Pzta.
Iturengo Udala.....	198.240 Pzta.
Oitzko Udala.....	25.200 Pzta.
Urrotzko Udala.....	5.000 Pzta.
Zubietako Udala.....	99.120 Pzta.
Leitzako Udala.....	1.444.164 Pzta.
Goizuetako Udala.....	200.000 Pzta.

(*) 1991. urterako emandakoak.

ttipi-ttaparen 1991.eko aurrekontua.....23.184.976 Pzta.

Harpidetza kopuruak herrika, urriaren 24ean

BANAKETA HERRIKA

BAZTAN.....1.049

Baztan.....928
Urdazubi..... 77
Zugarramurdi..... 44

BORTZIRIAK.....1.538

Arantza.....156
Bera.....633
Etxalar.....157
Igantzi.....133
Lesaka..... 459

LEITZALDEA..... 639

Areso..... 40
Goizueta.....130
Leitza.....469

MALERREKA..... 967

Beintza..... 41
Bertizarana.....103
Donamaria..... 66
Doneztebe.....212
Elgorriaga..... 40
Eratsun.....40
Ezkurra..... 36
Ituren.....117
Oitz..... 30
Saldias..... 36
Sunbilla.....142
Urrotz..... 33
Zubieta..... 71

SARA..... 87

Sara..... 87


“
Eskualdeko
25 herrietan
4.280 harpi-
dedun zeu-
den egun ho-
rretan”

tipi-ttapa
4.600 ale
HANABOSTEKARRA




BANAKETAREN BILAKAERA

BANAKETA EUSKAL HERRIAN(*)



“
Eskualdeko 5 familie-
tatik 3 harpi-
dedun dira”

“
Eskualde-
tik kanpo
281 harpi-
dedun daude”



(*) Estatu espainolean 9 ale
Estatu frantzesean 2 ale
Ameriketan ale 1

Juan Jesus Larraz, ginekologoa:

“Bularretako minbizia: Hamar kasuetatik bederatzi senda daitezke, garaiz harrapatuz gero”

Gaurko gaia: Ginekologia, emakumearen osasuna eta gaixotasunak...

Amatasuna... Sabela, bularrak, umetokia, biziaren sumendi eta sorburu, eta aldi berean gaitza frankoren iturburu. Gai ederra eta gogorra, mamitsua, oraindik ere erdi isilik erabiltzen dugun tema, gure irakurleen sektore haundi bati betebetean interesatzen zaion gaia:

GINEKOLOGIA.

Gaur, hortaz mintzo zaigu gizon bat, apala bezain gozoa den mediku bat, ginekologo ezaguna eta aditua:

JUAN JESUS LARRAZ.

Leitzako semea, 47 urte, hiru seme-

Ren aita, sendagilea eta ginekologian espezializatua Barcelonan, euskaldun ederra. Azken hamabost urte hauetan ginekologo lanetan

Donostiako Erresidentzian.

Leitzetik Sararaino, hamaika ama eta emakume pasa da bere mediku

eskuetatik.

Zertara, zerk bultzatuta dator jendea ginekologo batengana?

Emakume asko ikusketara edo errebisio normalak egitera datoz. Edo familia izan behar dutelako. Hori emakume gazteen kasuan. Adineko emakumeak berriez, gehienetan, sabelean

edo bularretan mina sumatzen dutelako edo infekzioa bere partetan, kasu askotan.

Beraz, emakume gazteak eta adineko emakumeak arrazoin desberdinentzat?


Ez beti, baina, zoritxarrez, askotan bai. Eta zori-

txarrez esaten dut, adin bateko emakumeek, eta batez ere baserri girokoak eta herrietakoek, ez bait dute ohiturarik ginekologoarengana jotzeko mina sumatu edo odola galtzen dutela ikusi arte, ongi beldurtu arte. Gazteek mentalizatuagoak daude, baina adi-

neko emakumeek ez dituzte prebentzio neurririk hartzen, eta askotan berandu datoz.

Berandu, bere buruaren kaltetan...

Bai, bai horixe. Errebisio normal batean, edo lehenengo sintomak sumatu bezain abudo etorri eta an-



KARMELE

“Hamalau emakumetatik batek, bularretako minbizia izanen du bere bizitzan”

tzemanez gero, gaitza (infekzioa, edo bularretako koxkorrak, edo umetokiko lepoan...), garaiz harrapatuz gero, sendatzeko itxaropen haundiak daude.

Beraz, tarteka bisitaldi bat egitea hobe.

Bai, eta letra haunditan paratu hori: **Ginekologi errebisioa egin beharko luke urtero emakumeak.** Hau ez da brometako gauza: 14 emakumetatik batek bularretako minbizia izanen du bere bizian. Hori datu estadistikoa da.

Etzazula esan!

Bai, gogorra da, baina egia galanta. Baina ez dut egia osoa azaldu, beste datu hauek ere esan behar bait dira: bularretako minbiziak, 10 kasuetatik 9 senda daitezke gaur egun, garaiz, tenorez harrapatuz gero.

Eta arrisku berdina dute emakume guztiek?

Ez, denak ez dute arrisku berdina. Zerk eragiten duen bularretako minbizia, adibidez?: Jakin badakigu grasak eta lodi egoteak, herentziak eta adinak eragina badutela. Eta guztiz frogatuta dago presaka eta estu bidez, antsiak eta estressak zeharrik haundia dutela bularretako minbizia sortarazten eta gaixtatzen. Zer eta nola jaten dugun ere.

Kontseju bezala, ginekologi errebisio orokor bat egin urtero zitologia berrarekin. 40 urte pasatuak badituzu mamografia bat eginarazi bi urtetik behin. Odola galtzen duzula hile-



KARMELE

"Estressak, antsiak, presaka bidez eta gauzak estuegi hartzeak eragin zuzena du bularretako minbizian"

"Amaren bularra, hauraren janari..."

Hilerokoa pasa eta ondorengo egunetan, zuk zeuk bilakatu itzazu zure bularrak, ongi begiratu, aztertu, behatzez ikutu eta xanpatu, eta antzeman:

- Kanpotik edo barrutik, koxkorren bat aurkitzen duzun.
- Larru zatiaren bat gorritu edo naranja itxura hartu duen.
- Zauri, xulo edo errekatxoren bat egin ote zaizun.
- Titi puntta barru aldera sartu ote zaizun.

Galdegin zure medikuari nola haztatu ongi zure bularrak, eta ikasi.

Osasunez beterik nahi zaitugu, ama!

roko egunetik aparte edo menopausia ondoren, edo sabeleko mina... jo ezazu ginekologoarengana.

Kontsultan, ginekologoa, medikua ez ezik, konfesatzaile ere izanen da...

O, bai. Betarik hartzen baduzu —eta zoritxarrez,

askotan betarik gabe ibili behar dugu guk ere—, astia hartu eta konfidantza pixko bat ematen badiozu, emakumeak bere barruko gazizak kontatzeko beharra izaten du. Senarrak "oso lanpetuak" egoten bait gara, gauza horietaz hitzegiteko. Sexuaren inguruko

zera hori asko aldatu da, baina oraindik ere gauza ikaragarriak ikusten dira.

Hamaika istorio eta sekretu, ezta?

Begizu, eta hau nik neuk dakidala: Doktora Otxoa horren telebistako programa dela eta, emakume baten bano gehiagok konfiatu didate orainsu hasi direla orgasmo bat zer den ezagutzen. Oraindik ere informazio eza izugarria dago, batipat adinekoetan. Hemen entzuten diren istorio gehientsuen azpian, elkarren arteko armonia falta eta informazio eza azaltzen da.

Gozada bat da gizon honen hitzegitea.

ANTTON ERKIZIA

Juan Manuel Irazoki beratarrak irabazi zuen XI. Lizuniagarako Igoera Krossa

Pello Garin-en 16.13ko marka hautsi gabe dirau

Gure Txokoa taldeko Juan Manuel Irazokik irabazi zuen joan den urriaren 19an beran lasterkatu zen XI. Lizuniagarako Igoera Krossa, Gure Txokoa Elkarteko atletismo sailak antolatu zuelarik lasterketa. Nabarmentzekoa da, Irazoki proba honetako lehen irabazle beratarra dela, aintzineko zenbait alditan sailkapenerako goiko tokitan egon eta gero.

Sailkapenak

Irabazleak egindako denbora 17.15koa izan zen, 1982ko Pello Garin 16.13ko markatik urrun geratuz. Bigarren Irungo Angel M^a Azpiolea sartu zen 4 segundutara eta Juan M^a Gonzalez hirugarren 17.37rekin. Ondoren, Jokin Mendiburu eta Santi San Miguel iritsi ziren.

Bertzalde Julio Gonzalez gertatu zen irabazle heldu mailan 18.34eko denborarekin, Doneztebe-ko Jorge Orbegozo gazteetan 20.22ko denbora eginez eta M^a Carmen Ariztegi emakumeen maila bakarrean 21.03 denborarekin, 1987an Begoña Zuñigak finkatutako 20.32ko markatik urrun geratuz beraz.

Lasterketaren garapena

Irteera hartu zuten 72 las-

Juan Manuel Irazoki Lizuniagarako Igoeraren irabazlea saria jasotzen



terkariak elkarrekin joan ziren lehen metroetan, Mikelarena 40 metro inguru aurretik gelditu zen arte, ibilbidearen erdiralderaino. Iheslaria harrapatua izan

ondoren, bi talde eratu ziren. Lehenengoan Irazoki, Azpiolea, Gonzalez, Mendiburu, San Miguel eta Valpuesta zihozten. Azken biak atzeratu egin ziren eta

azken 30 metroetako maldetan Irazokik eta Azpioleak jokatu zuten elkarrekin gogor lasterketa, lehenengoak irabaziz lau segunduko aldearekin.

Herri kirol txapelketak ikusgai Doneztebe eta Elizondon

Azaroaren 15ean, ferriekin batera, Aizkora eta Arpana bigarren mailako Nafarroako txapelketa burutuko da Doneztebe-ko frontoian, arratsaldeko 6etan.

Bertzalde, Azaroaren 24ean eta Elizondon, sub-20 mailako mutilak eta neskek Nafarroako konbinatua eta soka-tira txapelketa jokoan paratuko

dute arratsaldeko 6etatik aintzinetan.

Froga honetan apuntatzeko epea, Azaroaren 17an bukatzen da.

Honekin batera aipatu Nafarroako Herri Kirol Federazioak bulego berria zabaldu duela Donezteben. Norbait bertara zuzendu nahi balu, 450 900 telefonora deitzea bertzerik ez du.



Soka-tira

**Sunbilla Nafarroako txapeldun
680 kiloko Sokatiran**



Sunbillako taldeak eskuratu zuen Nafarroako 680 kiloko I. Sokatira Txapelketa, urriaren 27an Beran "Lurraren Eguna"ren barruan jokatuako finalean

6 punturekin, bere lau tiraldiak irabazi ondoren. Gure Txokoa Beratarra izan zen bigarren 3 punturekin, Ultzamari bi aldiz gainditu eta gero.

Eskubaloia

**Baztango emakumezkoen
jubenil taldea ongi hasi da**



Badirudi Baztango emakumezkoen eskubaloien harrobia ez dela berehala agortuko, aurtengoan ere gogo haundiz hasi baitira jubenilak. Seniorretan ere hasi dira. Mutiak berriz, akabo.

goan ere gogo haundiz hasi baitira jubenilak. Seniorretan ere hasi dira. Mutiak berriz, akabo.



AITOR

**Doneztebeko Erreka eskubaloia
taldea bikain hasi da**

Jokatutako 3 partidoak irabazi ditu

Doneztebeko Erreka Esbubaloia taldearen haundien ekipoak bikain hasi du 1991-92 denboraldiari dagokion ihardunaldia, orain artean jokatuako hiru partiduetatik hiruak irabazi bait ditu. Horrela, liga hasi bertzerik ez duenean egin, lehenbiziko postuan dago

eta azken urteetako mar-txa berbera daramaki.

Iaz ere mailaz igotzeko puntu puntuan ibili zen baina ezin izan zuen lortu. Aurtengoan, taldearen gaztetasuna da ezaugarri nagusia, gehienak oraindik jubenil adinekoak baitira; Baztanetik ere etorri dira zenbait jokalaria.

**Hamabostaldiko
jokaldiak**



Maki Urtasun Iruritako eskubaloia jokalaria. Neskak honek sasoi ederra erakutsi du Baztango emakumezkoen eskubaloia taldean eta orain Hernani Ohore mailako ekipoak fitxatu du. Zorionak!

Baztango gizonezkoen eskubaloia taldeak Hainbat urtez Nafarroako pistetan talde bikainak aurkeztu ondoren, aurtengoan ez dute ekiporik atera, ez senior eta ez jubenil mailetan. Emakumeak segitu beharko dute.

Etxebizitzak

• **Beran** etxebizitza salgai, 100m² gehi 22m² balkoi, 9 milioitan. 630522

• **Beran** alkilatzekeo pisua behar da. Norbaitek baldin badu dei dezala 630072 tfnora. Ana.

• **Piso** bat alokatu nahi dugu Lesakan edo inguruan. Tfnoa: 580541 (gauzez).

• **Beran baserri**, borda edo pisu bat alkilatuko genuke. Tfnoa: 631136.

• **Oieregin** pisu zabala eta primerako materialekin egina, berria. Garajearekin. Tfnoa: 452048.

Lana

• **Neska gazte batek** Lesaka edo inguruan lan eginen luke adintuak zaintzen edo bertze zerbaitean. Esperientzia. Baita Iruñan orduka. 450528.

• **Baztan** inguruan haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan eginen nuke. Tfnoa: 58 04 71.

• **Iruñean** euskarazko klase partikularrak emanen nituzke OHoko haurrei. EGA titulua dut. Tfnoa: 130200 (Amaia).

• **Iruñean** arratsalde lan egingo nuke, haurrak, etxea, garbiketak, etab. Tfnoa: 130200 (Amaia).

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Saski Zar** ostatu traspasoan edo salgai. Tfnoa: 63 1188.

• **Lesakan**, lokal polita, berria, alaia eta herriaren erdian traspasatzen da. 35 m² ditu, bi partetan, prezio interesgarrian. Zure ilusio polit hori errealitate bihurtu ezazu, etorkizunari begira. Deitu 637410ra.

• **Frantses**, ingles eta aleman klaseak. Tfnoa: 45 15 65.

• **Kartera** bat etxeko eta kotxeko giltzekin agertu da Igantzin. Tfnoa: 634071.

• **Labadora** bat behar dugu, bigarren eskukoa. Tfnoa: 637796.

• **Beratik** Arantzara gindoazela, galdu zitzaigun Mendi-bizikletak (kilometroak neurtzeko, etab) zeukan aparailua (Micro-

pacer III-6 funtzio beltza eta gorria). Norbaitek aurkitu badu, deitu mesedez, 630332 tfnora.

• **Altzatetik** Berarako bidean gizonetzko esku-muturreko erlojuak galdu da. Norbaitek aurkitu baldin badu deitu mesedez 630216 tfnora. Sarituko da.

Salerosketak

• **Berako Musika Eskolak**, bigarren eskuko botoiezko akordeoiak erosiko lituzke. Tfnoa: 631205 (4etatik 9etara).

• **R-6** bat (NA-3620-F) salgai. Tfnoa: 450477.

• **Belarra** igotzeko makina elektrikoa eta ordenadora salgai. 615070.

• **Elizondotik** Urdazubira, 15.000 bat m²ko lur saila erosiko nuke. 452048.

• **Akordeioa** salgai. Melodia, 120 bajokoa. Tfnoa: 453060.

• **Akordeioa** salgai, Zero Sette marka, 120 bajo ditu erreduzitua. Oso berria da. 510575 (Milagros).

• **Yamaha** ziklomotorra salgai. Zozketan tokatua eta batere ibiltzekoa. 105.000

pzta. negoziagarriak. Tfnoa: 58 11 22 (Javier).

Harremanak

• **Legasako** Nekane Etxeparentzat:

Neskatxa eder bat ikusi nuen Legasako kalean, hitz edertxo bat hari esan gabe nola pasatu parean, Gorputza zuen liraina eta oinak zebiltzan airean, politagorik ez dut ikusi nere begien aurrean. Lagun baten partez.

• **Leitzako** Aitziber Barandaraini: Zorionak zure urtebetetzeagatik. Horrela jarraitzea espero dut. Leitzako B. O.

• **Ainara**: Alferrak alkilatzekeo prest gaude. Tasio eta Belen.

• **Zubietan** euskara ikasten dauden bi Maria-arentzat. Munduko neska jatorrenak eta hoberenak dira. Musu haundi bero bat.

• **Elizondoko** David Etxeberriarentzat: Munduko mutil ederrena zara. Beti ikusten dazut polita. Ikusi arte. Irene.

• **Donamariako** Ameliari, zu zara nere bihotzekeo maitagarria. Lazaro.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

RUIZ OKINDEGIA


Autozerbitzua

Karrika Nagusia 3, Tfnoa: 45 00 37 - **DONEZTEBE**

MARTIN HARATEGIA

BERTAKO ARETXIAK

Parrokia 1, Tfnoa: 45 02 67 - **DONEZTEBE**



ERAKUSKETA:
BEREAU ETXEA
LESACA NAFARROA
Telf: (948) 637266

BORTZIRI

«UNSION ANAIK»

SUKALDERAKO HALTZARIAK



ESTETIKA • SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - **BERA**

BENTA - BERRI Larruaren Etxea



Egunero irekia, goizeko
9etatik arratsaleko 7etara.



▼ Kazadorak, jakak,
galtzak, gonak,
berokiak, boltso
eta eranskinak

▼ Moda
saltzen dugu
prezio eta
kalitate ho-
berenetan


IBARDIN, Tfnoa: 630 708 - **BERA**

AMAIUR

sukalde eta
bainu
altzariak

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa[®]



**ZURE BAINUA ALDATZEA
PENTSATZEN BADUZU ZATOZ
GUREGANA:**

**MOBLEAK, ISPILUAK, GRIFE-
RIAK, MANPARAK ETA BEHAR
DITUZUN OSAGARRI GUZIAK
DITUZU**

**Juan Arana, 3
Tfnoa: (943)
61 17 67
IRUN**

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak